

3. Konpromiso Taldearen

1. bilera

2018ko azaroaren 19a

.....

Bileraren helburua

Taldearen funtzionamendua zehaztea eta lan-plana doitzea, berori osatzen duten pertsona guztien espektatibetatik, mugetatik, nahietatik eta lerro gorrietatik abiatuta.

Parte-hartzaileak

Joseba Muxika, Javier Bikandi, Koldobike Uriarte, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, César Rodríguez, Jonatan Moreno, Itziar Solozabal, Elsa Fuente Do-Rosario, Mikel Barturen, Olatz Jiménez-Eguizabal, Ana Viñals, Aitzol Batiz, Danel Alberdi, Mikeldi Zeberio, Antxon Gallego, Jon Abril, José Luis Roncero, Itziar Calvo, Miren Arbelaz, Ricardo Antón.

Gai-zerrenda

Geure burua ezagutzea

Bikoteka, "honetan ona/txarra naiz" eta "honekin laguntza behar dut" adierazpenekin aurkeztu dugu geure burua, taldean lan egiteko gaitasunei dagokienez. Gero, nork bere bikotekidea aurkeztu dio talde osoari, ildo berberari eutsiz.

Taldean lan egiteko tresnak

Lan-prozesuan taldean erabiliko ditugun lan-tresnak aurkeztu dira: taldean lan egiteko ildoak (osatzen joango garenak), unean jorratu ezin ditugun gai beroak gordetzeko hozkailua, aktak eta koordinaziorako posta elektronikoak.

Nahiak eta beldurrak

Banaka, I-lab honen inguruan dauzkagun nahiak eta beldurrak pentsatu eta idatzi ditugu. Talde txikietan partekatu ditugu, gero talde osoarekin partekatzeko.

3. Konpromiso Taldearen lan-plana eta esperientzien mapaketa aurkeztu dira

3. Konpromiso Taldeak hemendik irailera bitartean jarraituko duen lan-plana aurkeztuko du TIPIK, eta beste laborategi batzuen esperientziak mapatzeko egin behar den lana aurkeztuko du ColaBoraBorak.

Lan-planaren balorazioa

TIPIK eta ColaBoraBorak azaldutakoa baloratu dugu, eta lan-planaren une garrantzitsu eta pizgarriak nahiz arriskuak eta hobetu daitezkeen alderdiak identifikatu.

Amaiera

Txandaka, bilera laburbiltzen duen hitz bat esan dugu.

Akta

Nahiak eta beldurrak

I-lab deritzonaren inguruko nahien artean, hauek nabarmendu dira:

- Esperimentatzeko gune bat sortzeko nahia: administrazioak ohiko testuinguruetan hartu ezin ditzakeen arriskuak hartzeko, ausartzeko eta berritzeko tokia sortu nahi da.
- Herritarren (antolatuen eta ez-antolatuen) eta administrazioaren arteko zubia izateko premia, antolatuta ez dauden pertsonengana iristeko beharra azpimarratuz.
- Bertan erreferentziazko proiektuak edota "itsasargi-funtzioa" egingo duten esperientzia garrantzitsuak sortzeko nahia.
- Kokatuta lan egiteko eredu propioa sortu eta zehazteko nahia; hortaz, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian zehaztutakoaren hedapenaren zatizat hartu beharko litzateke.

I-lab deritzonaren inguruko beldurren artean, hauek nabarmendu dira:

- Kontu erretorikoa besterik ez izateko beldurra; hau da, benetan ezarriko ez den dokumentu teoriko gobernaezin bihurtzeko beldurra.
- Herritar antolatuengana bakarrik iristeko eta, beste behin ere, «persona berberak kontu berberetaz hitz egiten» egoteko beldurra.
- Epe luzerako bideragarritasuna; hau da, epe luzera proiektua abian edukitzeko beharko diren baliabide nahikoak ez aurreikusteko beldurra.
- Gure testuinguru zehatzarekin bat egingo ez duen eredu sortzeko eta beste adibide arrakastatsu batzuen kopia hutsa izateko beldurra.

Lan-planaren balorazioa

Laborategien Mapaketa proiektua (ColaBoraBora) aurkeztu ondoren, honako iritzi eta ahots hauek jaso dira:

- Mapaketan aniztasun tipologiko gehiago sartzea iradoki da, bai eta Europako iparraldeko esperientziei begiratze iradoki ere, gure gizarteak iparraldea hartzen baitu erreferentziazat etengabe. Erresuma Batuko (NESTA, Young Foundation), Frantziako (27. eskualdea), Bostoneko, Austineko, Bartzelonako (IGOB) eta Oñatiko (Eltzia) jarduerak txertatzeaz hitz egin da. Euskadiko eta Latinoamerikako gizarte-arazoak desberdinak dira. Gure balioek antzekotasun handiagoa dute Europako iparraldekoekin.
- Mapaketa irekia edo mapaketa bideratua egiteko aukeren aurrean, honako hau da proposamena: mapaketa bideratua egitea eta aztertuko diren laborategiek sortzeko egin zituzten mapaketak baliatzea. Gainera, adierazi denez, Latinoamerika parte-hartzearen inguruan da interesgarriagoa, gizarte zibila antolatuago dagoelako (estatuak ez dira hain solidoak). Komeni da Europatik kanpoko tokietara begiratzea. Kualitatiboak izatea eta ez kuantitatiboak. Latinoamerikak begiratu egiten gaitu, ikusitakoa berregiten du, eta arraro nahasten du.
- Gutxi eta ondo begiratzea hobe delako ideia indartu da: hobe da interesatzen zaizkigun gauzak egiten dituzten edo aplikatu nahi ditugun alderdiak dauzkaten laborategiak mapatzea.
- Latinoamerikara begiratzea eta Europako iparraldera begiratzea proposatzen duten jarrerak biltzeko, irtenbide modura planteatu da Europako eta Latinoamerikako laborategi bana aztertzea, bi latinoamerikar bakarrik aztertzea baino, hasierako proposamenak zioen moduan.

3. Konpromiso Talderako proposatu den lana baloratzean (TIPI), iritzi hauek jaso dira:

- Une garrantzitsu edo pizgarritzat jo dira I-lab deritzonaren gobernamendu-ereduaren lehenengo prototipoa egitea, prototipo horren kontzeptualizazioa baliozkotzea (3. bilera), erkatze-foroa egitea eta pilotatuko diren estrategiak eta galderak zehaztea.
- Une arriskutsutzat jo dira 3. bilera (I-lab deritzonaren gobernamendu-ereduaren lehenengo prototipoa egitea, prototipo horren kontzeptualizazioa baliozkotzea) eta pilotatzea abiatu aurretiko urratsak; hau da, hautapen-irizpideak zehazteko uneak (5. bilera) eta horien plangintza (6. bilera).

Balorazioari egin zaizkion ekarpenen edo iruzkinen artean daude honako hauek:

- Nork gidatuko du pilotuen exekuzioa? Pilotuen bideragarritasuna, lerro gorri izateari dagokionez. Beharrezkoa da antolaketa- eta kudeaketa-eredua zehaztea.
- Nola landu ñabardurak eta akordioak presaz gaudenean?
- I-lab honen kideak benetan dira askotariko euskal herritarren ordezkariak? Zaila da herritarrek parte hartzeko I-lab bat ulertzea, antolatu gabeko herritarrik gabe.
- Konpromiso Taldea dinamizatzean, garrantzitsua da pertsona guztiek «kargua edozein izanik ere» modu orekatuan parte hartuko dutela bermatzea.